



3 GIZARTEA BAI plataformaren I. topaketak ostegunetik aurrera

Bakegintza eta elkarbizitza, hondakinen kudeaketa, ekonomia eta enplegua dira ostegunetik aurrera eta otsailaren 26ra bitartean Lasarte-Oriako BAI plataformak jorratuko dituen gaiak. Lehenengo aldiz antolatuta ditu topaketak eta osteguneko Villa Mirentxun izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Bizikidetzaz izango dute mintzagai tokiko ikuspegi batetik.

4-5 ELKARRIZKETA Joanes Maizarekin energi-kontsumoari buruz solasean

Belgikara duela hamar urte eginiko bidaia batek kontsumitzeko beste eredu bat eza-gutzeko aukera eman zion Joanes Maizari. Energia berritzagarrietan oinarrituta, iaz sortu zuten Goienerr sorkuntza eta erosle kooperatiba. Bertako lehendakaria da lasarteoriatarra eta gaur egungo gizartearen energia kontsumitzeko eredu berriak posible direla adierazi du.



Buruntzaldea IKT etxeko uretan

Parte-hartze eta errendimenduko 3. jardunaldia egin da herrian



Buruntzaldea IKT-ko 20 bat gaztek egin zuten igerian Lasarte-Oriako udal igerilekuan. Probak hasi aurreko talde-argazkia.

Hernani, Tolosaldea, Beasaingo Igartzeta, Usurbil, Ordizia eta Lasarte-Oriako Buruntzaldea IKT-ko 130 bat gaztek lehiatu zuten herriko txapelketan. Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT-ko prestatzaileak adierazi zuen larunbateko froga nagusian, 400m libreetan, bere igerilariak emandako mailarekin "gustura" zegoela.

Harmailak igerilarien lagun eta senitateko koez beteta zirela, arratsaldeko 15:30etan hasi zen herriko igeriketa txapelketa. Ligako parte-hartze eta errendimenduko 3. jardunaldia zuten igerilari lasarteoritar gazteek: "Ondo ibili dira, gure entrenamendu sistema normalari jarraiki egindako txapelketa izan da, ez dugu bereziki prestatu", esan zuen Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak.

Txapelketa eguneko goiz hartan bertan entrenatu egin zuten herriko igerilariak. "Lan aerobikoa edo iraupen-erdikoa lantzen aritu gara, erritimo hartzeko txapelketa izan da, denborei baino garrantzia handiagoa eman diet sentsazioei, baina aipagarria da gehienek euren markak hobetu dituztela, batez ere oso gustura nago 400m libreetan eman duten mailarekin", zioen Apeztegiak.

Norbanakoak aipatzen hasia, denbaldi handia egin ari den Iñigo Ibarbururen izena bota zuten Apeztegiak, 200m eta 50m bizkar frogatan "indartsu" ikusi zuela adierazi du eta 400m libreetan ere parte-hartu zuten bere froga ez izan arren. Itsaaso Tolosa ere pixkanaka-pixkanaka gortuzaldi onenera gerturatu ari da, 200 estileotan eta 200 tximeletan Espainiako gutxieneko denboren jirabultan ibili zen.

Gurasoei eta senitatekoiei ere eskerrak eman zizkien Apeztegiak antolaketan parte-hartu zutelako. Borondatezko lanean, speaker lanetan, kronometroetan, harmailak jarri eta jasotzen... Lan handia egin zutela onartu zuten prestatzaileak.

Vazquez Getxon

Igerileku laburra alde batera utzita, asteburuan ere izan da beste igerilari bat lehia. Jone Vazquez infantilak distantzia luzeko txapelketa eduki baitzuen atzo. Iraupen-luzeko 2000m libre proban parte-hartu zuten Getxoko uretan.

Azkenik, Apeztegiari epe laburrera dituzten helburuez galdetuta, Neguko denboraldi amaieran izango diren Espainia, Euskadi eta Gipuzkoako txapelketak aipatu ditu: "Entrenamendua ororabide egokian doazela uste dugu otsaila eta martxoan maila ona emateko. Gero, Aste Santuan, Panticosara joango gara stage bat egitera. Entrenatzeaz gain, talde sentimendua indartzeko erabiliko dugu egonaldia".

ADURIZ DE LASARTE S.A



BERTAKO FABRIKAZIOA

*Odolkia- Solomo ontzutua - Solomoa baratxuritan
Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua
Etxeko txorizoa Baserri pateaa
Txistorra*

Adituak dio



Oihana Salazar Merkealdiak

Gabonak igaro dira, eta orain beti legez gehiegia jan-edan eta gastatu dugun sentazioa izan dezakegu. Gabonetako gehiegikerien ondoren iristen dira beharpenak, eta, askotan, Gabonetako gastuak erakartzeko asmoz, eskaintza hauei etekina aterari nahi diegu. Merkealdiak urtero errepikatzen diren gertaera sozial bihurtu dira gure artean; gehienon ahontan ibili ohi da gai hau urte sasoi honetan.

"Hori bakarrik erosi duzu?!", "zer polita den erosi duzun hori!", "hori besterik ez duzu ordaindu, zuk bai jakin erosten!" edota "begira zer erosi duzun, eta xxx euro besterik ez dut ordaindu", edonork esan ditzakeen esaldiak dira. Hori horrela, maika bat aurkitzeak pertsonarengan eragin emozionala duenez, norbanakoak era ezberdin batean jokatu du beharpenarean, dudarik gabe.

Egungo egoera ekonomikoak kontuan hartuz, beharpenek erole asko erakarri nahi dituzte, eta saltoki handiek soberan dakite bai, nola erakari utesko kontsumitzaile. Kontsumo psikologian buru belarri dabilizan merkiten adituak era guzietako trikimailuak erabiltzeko prest daude gure arreta berenganatu asmoz. Jende askok garai hau aprobetxatu ohi du ohikoa baina prezio baxuagoan produktuak lortzeko, baina dena gure mesedetan ote?

Argi dago, iragarki, beharpen eta eskaintzen helbururik nagusia den kontsumitzailearengan behar berezia sortzea da; horren ondorioz, gauza materialek zorientasunarekin haremaren zuzena dutela sinestearino iritsi gara. Aukera paregabeak aurkitu nahi ditugu geure arrakasta optimizatzeako ahalik eta kostu ekonomiko baxuenean; gure arrakastak, ordea, zerikusi gutxi du eskurapen materialekin. Hau guztia argi izanda, ea ber zer nolako aukera zoragarri eta eutsi ezinezko topatzen dituzuen aurtengo merkealdietan! Zorte on!

Pagotxaren bila

Aurreko asteartean hasi ziren ofizialki merkealdiak. Urteroko hitzordua izan arren, aurtur ere pagotxa gehien kanpaina honetan erosteko aukera izango dugula entzun dugu dagoneko hamaika aldiriz. Krisia dela eta azken urteetan merkatariak gutxiago saldu eta eskaintza paregabeak omen dituztela euren saltokietan. Herriko dendetan hala dela sinestu daitelake baina handietan...

Omen diot, duela egun batzuk ziurrenik zuetako askok Twitter eta beste sare sozialetan ikusiko zenuelako: saltoki ezagun batek garai honetan egiten duen iruzurrak agerian uzten zuten hainbat irudi ikusi ahal izan ziren.

Halakoen aurrean, asaldatu egiten gara, tontoak bagina bezala tratatzen gaituztela diogu, ez garelako denda horietara izuliko... baina hasierarek gutxi irauten du. Salbuespenak

salbuespen, ez gara gai izaten denda horietara gehiago ez sartzearen hitzari eusteko. Dituzten argirik modakoak dira eta horiek nahi ditugu kostala ala kostu. Zergatik gertatzen ote da menpekotasun hori, denek jantzen duten bezala jantzi, leku berdinetan erosi... korronteak garamatzen kanpaina goazela dirudi, itxura antzekoarekin gainera konten arera. Ez zaizue gertatu hamabost urteko liguak koadrila bak kalean ikusi eta denak berdina direla iruditzen? Orrazkera bera, arropa antzekoa edo berdina.

Gure adituak diru esaldi honek laburbiltzen du esandako guztia "aukera paregabeak aurkitu nahi ditugu geure arrakasta optimizatzeako ahalik eta kostu ekonomiko baxuenean; gure arrakastak, ordea, zerikusi gutxi du eskurapen materialekin".

Hitz eta pitz

Merkealdietan zerbaitek erosteko asmoa duzu?



Mari Carmen Lurgain

Egia esan ez dut ezer behar eta ezezkoak esango nuke baina gero beti erosten da zerbaite. Gustuko zerbaite ikusten duzun denda batean eta gure burua pixkat engaitzen dugu merkeagoa dagoelaren aitzakiarekin. Esaten ari dira deskontu handiak dituztela dende krisia dela eta ez delako asko saldu baina nik ikusi dutenaganatik, ez zait inuluzten hain besterako direnik.



Jon Mixelena

Nik merkealdietan ez dut ezer erosteko baina ematea joango da bai erostekak egitera. Bera arduratzen da beti arropa eta halakoetak. Nik zapata batzuk behar ditut eta ziurrenik merkealdiak aprobetxatuko ditugu horietako. Beti esaten dute kriston merkealdiak egongo direla baina nik uste dut gezurra dela, jendeak erostu dezan egiten den bitiko kanpaina iruditzen zait.



Ekiñe Molina

Ez dut uste merkealdi hauen asto gastatuko dudunik. Aurtengo Gabonetan nahiko diru gastatu dut eta ezin da dena. Krisian gaude eta gastatu neurtu behar dira eta buruarekin egin erostekak. Hala ere, beste urte batzuetan itxoin izan dut beharpen garaiak aurrez ikusitako arropak erosteko eta orokorrean aukera ona dela iruditzen zait.



Lucia De Olivero

Krisia dela eta etxeko egoera ekonomikoak ez dit aukerarik emango aurtengo merkealdietan erosteko. Nahiko lan dugu hila-bete amaierara iristeko. Horregatik, ez dut ezer erosteko asmorik. Beste urte batzuetan erosi izan ditut arropak eta bestelako produktuak beharpen garaietan eta maika onak aurkitu izan ditudala uste dut.



Kanpainaren material banaketa Manuel Lekuonan egin zen.

Iruditan

Merkealdiak euskaraz

2008an Ricardo Ortega Euskara Batzorde buruak eta Marifer Gorostiza Euskara sailleko teknikariak, Lasarte-Oriako izenean, herriko 29 establezimenduri elementu desberdinek banatu zituzten Manuel Lekuona kultur etxean egin zen ekitaldian. Materialaren artean, orain/lehen kartelxoak eskuratu zituzten dendariak prezioak zuzen iragartzen laguntzeko. Hauek, erraz ezaba zitezkeen errotulagailuz idaztekoak ziren, behin eta berriro erabiltzekoak. Eta, honetaz gain, Merkealdiak eta Eskaintzak iragartzeko kartel forsofito handiak ere banatu zitzaizkien.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Gipuzko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Tiatun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigue, Maider
Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Argintza Artola

publizitatea@tatu.com

administrazioa@tatu.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maiti Aruti, Asier

Odriozola, Jone M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Aizpirtate,

Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

GIZARTEA

I. BAI Topaketak antolatu dira

Elkarbizitza, hondakin kudeaketa eta enplegua izango dira gaiak

Lasarte-Oriako BAI plataformak I. Topaketak antolatu ditu. Urtarrilean eta otsaila artean egingo den ekitaldi sorta hauetan hiru gai jorratuko dira bakegintza eta elkarbizitza, hondakin kudeaketa eta ekonomia eta enplegua. Lehengo saioa ostegunean izango da Villa Mirentxun. 19:00etatik aurrera, Imanol Lizarraldeak "Behetik eraikitako bizikidetzak" du mintzagai.



BAI plataformako kideek I. Topaketaren aurkezpena egin zuten ostiralean Villa Mirentxun.

TXINTXARRI

BAI plataformako kideek ostiralean I. BAI Topaketak aurkeztu zituzten Villa Mirentxun. Plataformaren izenean, Estixu Alkorta, Boris Nogales eta Natxo Izeta izan ziren ekimeneren nondik norakoak azaldu zituztenak.

Agerraldian Estixu Alkortak gogora ekarri zuenez, BAI plataformak 1979tik orain arte EAJ, EA eta Hamaika bat alderdiaren arituko zinegotzi abertzaleak osatutako taldea da.

lazio ekainean Brigitarren komentuan aurkeztu zuten BAI, Bakea Askatasuna eta Ikurrina plataformak eta taldearen asmoa azaldu zuten.

Egitasmoak "lasarteoriarren jendea abiaburu, bidaiari eta hel-

muga" izanik, bi esparruetan elkarrekin egiteko konpromezua hartu zuen orduan: herriko biktimen oroitzen eta bakea eta bizikidetzak, tokiko ikuspegiak berreraikitzen laguntzea eta "Udala, gizarte eragile eta enpresa ekintzaileak elkarlanera ekar ditzakeen udalerri mailako lidergo ekimenezkoak behar dela irizita, auzolanean tinko aritzea".

Gaiak

Era honetara, bi helburu hauek ardatz izanik, I. Topaketak antolatutako dituztela jakitera eman zuten.

Baina beste gai bat ere txertatu nahi izan dutela azpimarratu zuten Estixu Alkortak, zaborren kudeaketa. "Gipuzkoako osoan hika-mika eta eztabaida beroak piztu baditu-

ere, hartu diren azken erabakiek ez dute zaborren kudeaketaren auzia konpondu".

Saioak

Topaketa hauetako jarduerak urtarilla eta otsailaren zehar Villa Mirentxun egingo dira.

Bakegintza eta bizikidetzari buruzko hiru saioek emango diote hasiera topaketari.

Lehen hitzaldia ostegunean izango da. Imanol Lizarraldeak "Behetik eraikitako bizikidetzak" izango du mintzagai.

"Hau oso gai garrantzitsua da guretzat. Izan ere, behetik eraikitzen den bizikidetzak sustatu eta indartzea da gure interesetako bat," aipatu zuten Natxo Izetak.

Patxi Meabek "La salud

democrática de la convivencia" hitzaldia eskainiko du otsailaren 6an eta 12an, berriz, Urnieta-ko bizikidetzaren esperientzia aurkeztuko du Maribel Vaquerok.

Otsailaren 15ean, Zaborren kudeaketari buruz Josemari Puldain, Natxo Izeta eta Carlos Ormazabal arituko dira. "Herriarren eta erakundearen ikuspegi ematen saiatuko gara bertan".

Otsailaren 26an, enplegua oinarritzat hartuta adituei zuzendutako foro bat antolatuko da.

Enplegu foroak izan ezik, hitzaldi irekiak izango dira guztiak. Astearen zeharreko saioak 19:00etatik 21:00etara izango dira eta larunbatetakoak, berriz, 10:30-13:30 artean egingo dira.

UDALBATZARRA

Hiru mozio
Ohiko batzarrean

Lasarte-Oriako Udalake astearlean, urtarrilaren 14ean Ohiko Udalbatzarra egingo du.

Honetan Urnieta eta Irungi ITV-etako enpresa batzordeak aurkeztutako mozioa azteruko da eta Bilduk aurkeztutako bi. Batetik "emakumeen autonomiaren eta erabakitzeko eskubidearen defentsa" eskaera jorratuko da eta bestetik lehengo asteazkeneko operazioa dela eta, Euskal Preso Politikoen Kolektiboarentzat bitartekari lanak egiten dituzten hainbat pertsonen atxiloteta ere izango da mintzagai.

Azkenik, galdera eta erreguen txanda izango dute alderdiek, baita Batzarera hurbiltzen diren herritarrek ere.

KULTURA

Kiburu antzerkia
larunbatean

Larunbatean, urtarrilaren 18an, Kiburu haurrentzako antzerkia eskainiko da, 18:00etatik aurrera.

Musika eta clowna uztartzen diren antzerki honetan, Xebas eta Cocó palatzoek haien ekitaldi berria presatuko dute. Honetan elementu berri bat sartu nahi dute, gorila bat.

Ekitaldiko sarrerak 3,00 euro baliu ditu; internet bidez hartuta 2,70 euro.

TOPAGUNEA
Motibazioa
lantzen

Euskaltzaleen Topaguneak XI. Topaldia antolatuko du urtarrilaren 30ean, Durangoko Elkartegian. "Geure ardura pertsonal eta kolektiboa aktibatzen" izeneko jardunaldian, motibazioa izango da gai nagusia.

Aurtengo jardunaldietan, euskara erabiltzera edo ez erabiltzea bultzatzen dituzten motibazioak aztertu nahi ditu Topaguneak.

Horretarako, soziolinguistikaren eta hizkuntzaren inguruko beste zenbait arlotan adituak diren lagunak izango dira topaldian, esate baterako Iñaki Martínez de Luna, Esti Amorrortu, Rosa Ramos eta Juleen Arexolaleiba. Egun osoko topaketa izango da, goizeko 9:00etatik 18:00etara.

Matrikulatzeko 30 euro ordaindu behar dira, bazkaria barne. Zeren ematea urtarrilaren 26an arte egingo da zabalik, topaldia.wordpress.com webgunean.

Atxilotetak salatzeako manifestazioa

Asteazkeneko atxilotetak salatzeako manifestazioa egin zen ostegun iluntzean herriko kaleetan barrena.

Lasarte-Oriako hainbat eragilek deituta Okendotik abiatu eta erdigunetik manifestazioa egin zen "Konponbideari erasorik ez!" lelopean.

Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan bezala Lasarte-Orian manifestazioa egin zen asteazkenean EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren Mintzaidetza Lanetarako Taldeko kideen atxilotetak salatzeako. Manifestazioak herritar urgu bildu zuten eta arazorik gabe gauzatu zen.

Jose Luis Campos atxilotutako abokatuetako bat herrian bizi zen duela urte bete inguru,



Ostegunean herriko erdigunetik egin zen manifestazioa atxilotetako salatzeako.

ru, nahiz eta donostiarra izan, eta Ustin kaleko 5. zenbakiko etxebizitza miaztera ekarri zuten asteazken gauean.

Goizeko 3:30ak aldera atxilotu eta etxebizitzatik eta

ordura arte kalea itxita eduki zuten Guardia Zibilak. Manifestazioaren bukatuan, Okendot bertan, herritar batek atxilotuena egoeraz zituen azken berriak eman zituen.

Aldi berean, larunbatean, Bilboko manifestazioaren parte hartzeako arazotegi gehiago zuzenduta esan eta lasarteoriarren honetan parte hartzera deitu zituzten.

FUTBOLA

Igoera faseko lehen hiru puntuak

Ostadarreko 1go jubenilek 1-0 irabazi zuten atzo Tolosarren aurkako igoera faseko neurketa

Gozogoak izan ohi dira izugarri sufrirituta lortzen diren garaipenak. Zelaian dena emanda, xisko eginda partidak bukatu eta hiru puntuak zakuan dituzula aldageletarako bidea hartzea gauza handia da. Ba horixe egin zuten Ostadarreko jubenilek. Etsi gabe etsi. Ondo egindako lanaren emaitzak ikusi egiten dira berandu baino lehen.

TXINTXARRI

Neurketa serioa, gogorra eta intentsitate handikoa jokatu zuten Ostadar eta Tolosako mutilek. Golik gabeko lehen zati lehiatu baten ostean, bigarren zatian erabaki zen partida.

65. minutuaren bueltan atzelarien baloi luzea Andonik hartu eta sakonean pasea eman zion Lopezzi honek garaipenaren gola egin zezan. Izugarri gustura zen Javi Solchaga entrenatzailea: "Gure helburua lehen bosten artean gertatzea da eta horrela egin ez gero ez genuke iogearik aparte ibili behar".

Jubenilek aurreko asteburuan hasi zuten igoera fasea. Pasaiaren aurka jokatu zuten partidari 0 eta 1 galdu zuten.

Aurreko fasean taldeak bere multzoko lehen postua eskuratu zuen hamar partida irabazi, bat berdindu eta

beste bat galdu eta gero.

Honetan, Burumendi, Antigua Luberri, Tolosa, Pasaia, Bergara, Astigarragako Mundarro, Santo Tomas Berri izango ditu aurrez aurre. Taldeko bi lehenak Jubenilen Ohreko mailara igoko dira. Oraingo hurrengo astean Mutriku duten partidaz pentsatzen ari dira. Pausoz pauso.

Kopa

Baina ez da jubenilen taldea bigarren fasean lehiari dagoen bakarra. Izan ere, kopa txapelketa hasi baitute asteburu honetan beste hainbat taldeek.

Texas Lasartearra taldeko I. erregional eta jubenil mailako mutiak esate baterako, txapelketa honetan izango dira. Erregionalak edeki ezagutzen duen fasea da, hainbat urtetan garaikura eskuratu duelarik.

Ostadarreko kadete mai-



Garaipen bikaina lortu zuten Ostadarreko jubenilek, ez sufritu gabe ordea. Are meritu gehiago dute urdin-beltzek hainbat minutuz bat guxiagorekin aritu zirelako. Haizeak eta bi taldeek erakutsitako intentsitateak asko gogortu zuten partida.

lako taldeak ere txapelketa honetan lehiatuko dira.

Partaidetza

Bestalde, Ostadar SKT-ko infantil txiki taldea partaidetza lehiaketan ari da buru belarri. Fase honetan bere multzoko lehen postuan dago. Jokatu dituen lau partidak irabazi ditu eta asteburu honetan Urrietaren aurka jokatu du. Hiruna berdintzea lortu zuten larunbata Ostadarreko txikitxoek.



Ostadarreko infantil txikiak hiruna berdindu zuten Urrietaren aurka.

ATLETISMOA

Busto hirugarren Euskadiko txapelketan

Euskadiko proba konbinatuak txapelketa burutu zen urtarrilak 3 eta 4an Donostian. Honetan LOKEko Eneritz Busto gazteak brontzeko domina eskuratu zuen jubenil mailako Pentathlon proban.

Eneritz erregularrak izan zen. Lau probetan lehen hiru postuetan egin zen. Lasarte-Oriako gazteak altuera eta pisu probak irabazi zituen, bigarren izan zen 800 m. lasterketan eta hirugarren, 60m. herri-lasterketan. Luzera jauzi proban, aldiz, bosgarren postuan amaitu zuen.

Oskar Goikoetxea entrenatzaileak aitatu duenez, "bere lehen urtea da mailan eta edeki lehiatu zen. Gainera, altuera eta hesi-lasterketa probetan egindako markai esker, Valentizian egingo den Espainiako txapelketan izango da".



Maria Eugi, Itoitz Rodriguez eta Eneritz Busto arxivoko irudian.

Marka gutxienekoak

Baina ez da gutxieneko marka lortu duen atleta bakarra izan.

Proba konbinatu hauetatik kanpo 200 m. lasterketako proba libreak egin ziren hauetan LOKEko Itoitz Rodriguezek eta Maria Eugik ere Espainiako txapelketarako gutxieneko marka lortu zuten. "Itoitzek azken urteetako

markarik hoberenetarikoa egin zuen," aitatu du entrenatzaileak. Horren erakuse Espainiako ranking-ean lehen postuan dagoela da.

Eta markak hobetzen jarraitzen espero dutela aitortu du LOKEko entrenatzaileak. Izan ere, taldeko junior, jubenil eta kadeteak asteburu honetan Gipuzkoako txapelketan izan baitira lehiari.

Fermin Balda judoka hirugarren Burgosen

LOKEko Fermin Balda gaztea Burgosen ospatutako Espainiako Kopako saioan izan zen lehiari eta ez zuen hutsik egin, brontzeko domina eskuratu zuen.

Gorka Aristegui entrenatzaileak azaldu digunez, lau borroka izan zituen gazteak. Lehen biak eskaldun eta madrildar baten aurka izan ziren eta ez zuen arazorik izan.

Finalerdian aldiz, galego baten aurka galdu zuen norgehiagoka. Bigarren aukeran, edeki ibili zen eta hirugarren postua lortu zuen, madrildar bat garaitu ostean. "Ongi landutako borroka izan zen eta meritu handikoa," aitatu du LOKEko entrenatzaileak.



Altna Espainiako txapelketan Euskadirekin

Buruntzazpi txirindularitzako lagunek leane jarraitzen dute eta ez dute lehiaketan hutsik egiten.

Ziklokrosari dagokionez, urtarrilaren 5ean, Ormaiztegioko sarian Iñigo Altna kadeteak helmuga puntuan 4. postua eskuratu zuen. Eta egin duen denbora ona dela eta, asteburu honetan Euskadiko selekzioarekin lehiatu da Espainiako txapelketan.

Pista txapelketan, berriz, Harkaitz Murillo kadete mailako 5. postuan dago eta abenduaren 15ean burutu zen Gipuzkoako Klubeko txapelketako lehen jardunaldian Bazpiko junior taldea bosgarren geratu zen.

Agenda

Osteguna 16, 19:00etan, Villa Mirentxun



Bizikidetzeta lantzen

BAI plataformak antolatuta, I. Topaketen hasera hitzaldia eskainiko du Imanol Lizarraldeak, "Behetik eraikitako bizikidetzeta". Lehenengo hiru hitzaldietan tokiko ikuspedia kontuan izanik, bakegintza eta bizikidetzeta jorratuko dira. Zaborren kudeaketa eta enplegua eta ekonomia izango dira landuko diren beste bi atalak. Hurrengo saioa otsailaren 6an izango da.

dy Brotherhood eta herriko Gabezia taldeen eskutik. Sarrera, 5 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Urtarrila bukaera
arte

Paco Altuna herritarak Lasarte-Oriako hainbat eraikinetako maketak erakusgai jarri ditu.



Andoain

Dantza

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 17, 21:30etan

Circle of Trust & Logela multimedia konapiniak "Divenire" ikuskizuna eskainiko du. Sarrera, 10 euro.

Astigarraga

Sagardo berria

KULTUR-ETXEAN

Asteakena 15, 12:00etan

Andoni Gartzia, Astigarragako Alkateak, sagardoaren uztar berria aurkeztu eta bere ezaugarriak emango ditu eza-gutuzera. Ondoren, Txotx irekia izango da Alorrena sagardotegian.

Hernani

Erakusketa

BITERI KULTUR-ETXEA

Urtarrilaren 21era arte

"Condor legioak eragindako Gernikaren suntsipena" erakusketa ikusgai. Lau Haizetara Gogoan-ek antolatuta.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 19, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Jelly T Tarzan eskasa" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro.



Igandea 19, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Blue Jasmine" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro.

Ostirala 19, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Vivir es fácil" filma ikusi ahalgo da. Sarrera, leihatilan 4,70 euro; internet bidez, 4,30 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 18, 18:00etan

Haurren gozamererako "Kibubu" an-

tzertkia izango da. Sarrera, leihatilan 3 euro; internet bidez, 2,7 euro. Euskaraz.



Musika

ZULO ARETOA

Larunbata 18, 23:55ean

DJ Set-ek Al Alegria saioa eskainiko du.

Larunbata 25, 21:30ean

Metal jaialdia izango da Unbreath, Bloo-

Herritarren txokoa

Santa Teresa ikastetxean atereki jardunaldiak

Santa Teresa ikastetxeak urtarrilaren 16an, osteguna, 16:00etatik aurrera atereki jardunaldiak du.

Ikastetxeak 0 eta 18 urte arteko hezkuntza eskaintza egiten du.

Ikastetxeak Lasarte-Oriako herritarrek animatzen dituen hain egoitza eta hezkuntza sistema ezagutzera.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urtarrilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzekak

Odol ateratzekak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dagol!

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jaki-

narazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barakzi eta frutak, garaiari garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atak zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Hemeroteka

Duela 1092 ale

1995eko azken zenbakian, TXINTXARRI aldizkariak herriko gazteei lan-eskaintzak non aurkitu zituzkeen azaltzen zien errepertaje batean.

Gaur egungo gazteen antzera, 1995 urtean ikasketak bukatu eta herriko gazteek zer egin galdetzen zioten bere buruari. Orduan ere, lan-merkatuaren egoera ez zen ona eta lana aurkitzeko ahalgintza handiak ziren.

Gure herrian INEMek langabe-tuentzat lan-aukerak eskaintzen zituen, baina 1995eko irailetik aurrera beste aukera bat ere baze- gona, Gazteek informaziorako udal-bulegoa.

Orduan, askok gogoratuko dutenez, Manuel Lekuona kultur-etxean zegoen bulegoa; egun, Gaztelekuoan dago. Informazio ugari zegoen bertan: ikasketetarako diru-laguntzak, lahiaketa deialdiak, oposizioak, etab. Baina honetaz gain, astero egunkarietan eta aldizkari ofizialeetan agertzen ziren lan-eskaintzen berri ere ematen zen.

Arantza bulegoko langileak zerbitzuaren harrera ona azpimarratzen zuten artikuluan, "bataz astero etortzen dira, 22-28 urte bitartekoak, batez ere".

Beste aukeretako bat, udan begirale lanak egitea dela azpimarratzen da artikuluan. Takun kultur elkarteak orduan berriki antolatutako begirale-poltsa aipatzen zen. Honen helburua edozein erakundek jardura bat euskaraz antolatu nahiez gero, pertsona zerrrenda bat eskaini ahal izatea. Itakunek bitartekari lanak eskaintzen zituen ere.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Xenpelarren fruituak

Errenteriako Udalak antolatutako lehiaketa irabazi du Gotzon Huegun herriko eskulturgile eta artistak, herriko plazan finko geratuko da altzairuzko zuhaitza

Xenpelarren fruituak izeneko lana Errenteriako Foruen plaza zuhaitzen artean kokatu dute 1835. urtean jaiotako eta 1869an zendu zen Frantzisko Petrirena Rekando Xenpelar bertsolari errenteriarra jaiotako etxetik gertu. Zuhaitza hautatu du Gotzon Huegun lasarteoriatarrek Euskal Herrian sinbolikoki pisu handia duelako eta gainera Xenpelarren lana eta ondarea islatzeko egokia iruditu zaiolako. Obrak 1.500 kiloko pisua izango du. Hiru metro luze eta ia bi metro eta erdi zabal; oinarria lurrez estalita izango du.

TXINTXARRI

gande eguerdian inauguratu zuten Gotzon Huegun herritarrek landutako "Xenpelarren fruituak" eskultura-zuhaitza Errenteriako Foruen plazan.

Gustura zen lasarteoriatarra egindako lanarekin. Bere proposamenak konkurtsioa irabazi zuela jakitean, azaroaren 15ean ekin zion bideari. Lan gogorra eta eskerga egin behar izan du urtarilerako prest edukitzeko, baina egindakoaz harro agertu da Huegun.

Normalean harlanduzko eta egurrezko lanak egiten ditu Gotzon Huegun herritarrek, baina oraingo honetan corten altzairua erabili du: "Altzairuak denborarekin hartzen duen kolorea zuhaitz batek urten osoan hartzen duenaren oso antzekoa da eta gainera denborari eta eguraldi aldaketek bainan erantzuten die".

Huegunek adierazi du hasieran Xenpelar bera irudikatzeo ideia albo batera utzi eta bere ondarea islatzeko hautua egin zuela.

Zuhaitz bat egithe bururatu zitzaion orduan, Xenpelarren lana eta uztaeren erakusgarri.

Zentzu horretan, adierazi du haritza "euskal nortasuna" irudikatzen duen arbola dela eta era berean "baserriak" ere gogora ekartzen dituela zuhaitzak. Ez da ahaztu behar Xenpelar baserriarrek herria joan behar izan zuela sosak atara eta bizimodua irabazteko.

Fruituak bertsoz jantzita

Izan ere, eskulturaroko fruitu bakoitza Xenpelarren bertsoz jantzita dago. Hautaketa egiteko, Andoni Egaña bertsolariaren laguntza izan zuen. Besteak beste, *Pasaia herri-tik, Iparragirre abila dela eta Betroi bati* sortetarik hartutakoak izan dira bertso gehienak eta *Ja guriak egin du* bertsoak bereziki aukeratu dituztela gaineratu du Huegunek.

Xenpelar bere garaiko bertsolariarik handienetakoa izan zen, eta bere bertsoek gaur egunera arte irau badute ez da kasualitate izan.

Bertsolaritza dokumentuak



Gotzon Huegun herritarra arxivoko irudi batean.

agertzen diren unetik aurrerako bertsolari bikainenetako bat dela diote adituek.

Orain arte, ez du bere omenezko eskultura edo obrarik inon izan Xenpelarrek. Hemendik aurrera bai, eta lasarteoriatar baten sinadurarekin gainera.

Inaugurazioa

Atzo bertan aurkeztu zuten Huegunen lana Errenterian. Eguerdi aldean, festa moduko bat egin zuten eta ez zen txistulari, dantzari eta bertsolariarik falta izan.

Besteak beste, Jon Maia eta Andoni Egaña bertsolariak edota Jose Ignazio Ansorena musikari ezaguna inaugurazio ekitaldian izan ziren.

Gotzon Huegunek obraren inguruan hitz batzuk egin eta luntxarekin amaitu zuten ekitaldi xumea Xenpelarren etxepan.



Gotzon Huegun eskulturgilea hiru metro luze den altzairuzko obra alboan duela.

Ostiraletako lehen saioa, Gravity filmarekin

Orain arte, ohikoa izaten zen ostegun gauetan 21:30ak aldera kultur-etxeko atarian hainbat herritar ilara egiten ikustea zinemaz gozatu asmoz.

Bada, irudi hori aldatu egingo da. Hemendik aurrera ez baituzte pelikula ostegun gauetan proiektatuko, ostiraletan baizik.

Okendo Zinema Taldeko arduradunek adierazi dute, saioak ostegunetik ostiralera pasatzeko arrazoi bakarra "jende gehiago" erakartzea da.

"Probatu egin nahi dugu, azken aldia jende gutxi etortzen zen ostegunetako proiektioetara eta aldaketak honekin jende gehiago bilduko dugun itxaropena daukagu, baina ikusi beharko



Okendo Zinema Taldeak eta Udaltoki kultura sailak antolatutako ostiraletako lehen saioan 50 bat lagun bildu ziren.

bat lagun bildu ziren Manuel Lekuonako areto-nagusian, hala ere, eserleku asko hutsik ikus zitezkeen.

Dena den, hainbatek eskertu zuen aldaketa, bate-

tik, filmaren emanaldia ordu erdi atzeratzea postibotzat hartu zuten, ahaldu ostean lasaigo joan daitezkeelako zinemara (ostegunetan 21:30etan izaten ziren ema-

naldiak). Bestetik, ostegunetan modan jarri den pintxo-potearekin bat egiten ez duenez, gazteek aitortu zuten agian gehixeago animatuko direla.

OZT eta Lasarte-Oriako kultura sailaren eskutik, hamabostean behin herritarrek zinemaz gozatzeko aukera izango dute ostiraletan.

Ikusgai izango diren ostiraletako hurrengo filmak hauek: urtarilaren 24an "Vivir es fácil", otsailaren 14an "De tal padre tal hijo" eta otsailaren 28an "Stockholm". Ostiraletako zineforumerako sarrerak 4,70 euroko prezioa du, aurrez internetez erosiz gero 4,24koa. Hamar salotarako bono bereziak 35,40 euro balio ditu.